

EDARI PREZIATUA

Lege eta arauak historian beti sagarrondo, sagar eta sagardoa ongi babestu dituzte; 1457. urteko Gipuzkoako eta Bizkaiko ordenantza baten arabera, sagardun bost sagarrondo moztuz gero heriotza zigorrera kondenatua izango zen gaizkilea.

Ohitura bitxia da sagardoa ena. Sagarrak biltzetik hasi eta sagardoa edatera iritsi arteko erritua bat da. Erritua berezia, gainera. Sagarrak kizki eta otarrekin jasotzetik, kupela ireki eta txotx oihua egin eta sagardoa tragoan edaterainoko prozesuak berezitasun asko ditu. Eta sagardoa historia eta istorioak ere berezitasunez beteta daude.

Ohitura honen jatorria nondik datorren ez jakitea bera ere bitxia da. Sagardoa jatorriaren inguruko datuak gutxi eta oso nahasiak dira. Hala ere, nahiz eta ez jakin ez nork eta nondik ekarri zituen ere sagar eta sagardoa ena, *obitua, obitua da hitzak berridantzik baserriekin izan duten lotura*.

Sagarrak nondik iritsi zen Euskal Herrira. Hori da erantzun zehatzik gabeko lehen galdera. Batzuk Afrikatik sartu zela diote, besteek, txorien migrazioaren bidez zabaldu zela hazia hemen. Hala ere, teoriarik zabalduena arabiarrek ekarri zutela da.

Eta sagardoa? Nondik sortu zen sagardoa egiteko ohitura? Batzuk erromatarrengandik ikasitako ohitura dela diote, baina badira Euskal Herriko berezko ohitura dela, bertan sortutako ohitura dela, defendatzen dutenak ere.

Dena dela ere, urte eta mende hauetan guztietan gorabehera asko jasan ditu sagarrak eta sagardogileek. Oraingo sagardogileek gaur egungo araudiak bete behar dituzte, baina historian, besteak beste, foruen lege eta araudiak ere

bete behar izan zituzten garaian garaiko ekoizleek. Eta ez ziren lege samurrak izaten.

Etiketetik kalera

Sagardoa, sorreran, baserrietan egiten zen, eta etxeko kontsumorako erabiltzen zen. Hau da, ez zen salmentarako produktua. Hala ere, herriak eta hiriguneak sortzen hastearekin batera, industria sortzen hasi zen garaian, sagardoa salmenta sortuz joan zen. Eta salmenta haztearekin batera, araudiak sortzen eta areagotzen hasi ziren.

Gipuzkoako foruek mendeetan sagar eta sagarrondoen salmenta ongi babestu izan zuten. Oso arau protekzionistak izan ziren batzuk, baina *ola, sagar eta sagarrondoen aberastasun kolektibo gisa hartzen zituzten*, eta produktu horien espekulatu ez zedin neurriak hartzen zituzten. Gipuzkoako foruetan, atzerriko sagardoa Gipuzkoan sartzea debekatu izan da, besteak beste. Atzerriko sagardoa saltzeko Gipuzkoan bertako sagardoa bukatuta egon beharko zuen. Hau da, bertakoa ahitutakoan bakarrik jarriko zen kanpoko sagardoa salgai.

Gainera, atzerriko sagardoa salmenta debekatzeaz gain, Gipuzkoako herri arteko salmenta ere debekatu izan da historian. Horrela, tolosarrek ezin zuten Hernaniko sagarra edo sagardoa eskuratu, baina bai beraiekin Hernanin saldu. Halaber, hernaniarrek Tolosan saldu zezaketan, baina ezin zuten han erositateko Tolosara sartu. Arau horiek medio, auzi asko sortu ziren, eta Batzar Nagusien esku-



OHITURA. Sagarrak jasotzetik, kupela ireki eta txotx oihua egin eta sagardoa basoan edaterainoko prozesuak berezitasun ugari ditu. JON URBE / ARGAZO PRESS



ABERASTASUNA. Sagar eta sagarrondoak aberastasun kolektibo bezala hartzen ziren garai batean Gipuzkoan. ISABELLE HENRY - MADON SORGA / ARGAZO PRESS

hartzea ere askotan behar izan zen.

1457ko gipuzkoako ordenantza baten arabera, berriz, sagarrez betetako bost sagarrondo moztu

edo suntsitzen zituen gaizkilea heriotza zigorrera kondenatuko zuten. Beraz, garai hartan sagarrondoak preziatuak zirela sumatu daiteke.

Eta 1587ko Hernaniko ordenantza baten arabera, ahuntz bat sagastira sartuz gero, jabeak 24 marabediko zigorra jasoko zuen. Ahuntza beharrean antxumea bazen sagastira sartutakoa, 12 marabedikoa izango zen zigorra. Baina ilundutakoan gertatzen bazen hori, bikoitza izango zen zigorra.

Sagardoa salmenta

XIX. mendera arte oso arautua izan zen edari honen salmenta. Denboraldiaren hasierarekin batera, herriko Udalek sagardotegi eta kupelen irekiera arautzen zuten. Gaur egun ez da horrelakorik, baina garai batean sagardotegi gehiago ziren, eta lehia ere handiagoa zen; horien inguruko arau eta legeak ere askoz gehiago ziren.

Udaletxeetan sagardo arduradun bat zegoen, eta pertsona hori arduratuko zen sagardotegi guztietako sagardoak probatu eta zigilatzeaz. Ondoren, zozketa egingo zuen. Zozketa horren bidez, kupelen irekiera ordena erabakitzen zuten. Hau da, lehen zortzi egunetan zein kupel irekiko ziren erabakitzen zuten, ondoren gortzi egunetan zein izango ziren... horrela osatzen zuten egutegia. Eta horrela egin izan zen Tolosan 1758. urtera arte.



HERNANIN ONDO PASA,

EZ PASA HERNANIREKIN

HERNANIN ONDO ZAINTZEN ZAITUGU,

ZAINDU HERNANI



**Hernaniko
Udala**